




**Mondragon  
Unibertsitatea**


Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

# MEMORIA 2020-2021 IKASTURTEA



[www.mondragon.edu/huhezi](http://www.mondragon.edu/huhezi)





# AURKIBIDEA

4



## SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA

17



## EGOERA EKONOMIKO- FINANTZARIOA

19



## FAKULTATEKO LANGILEAK

8



## TXOSTEN AKADEMIKOA

- Graduak
- Unibertsitate masterrak
- Graduondoak: aditu tituluak eta espezializazio diplomak
- Etengabeko prestakuntza
- Ikerketa eta transferentzia
  - Ikerketa
  - Transferentzia
  - Argitalpenak eta zabalkundea
  - Hirugarren zikloa: doktorego programa

18



## KUDEAKETA- ORGANOAK

# SARRERA ETA AIPAMEN HISTORIKOA

---

2020-2021 ikasturtea ez da nolanahiko ikasturtea izan; aurreko ikasturteko ezohiko egoerak jarraipena izan du gurean eta asko ikasi bagenuen ere, COVID-19aren testuingurua zaila izan da denontzako. 2020-2021 ikasturtea modu indartsu eta seguruago batean hastea zen gure ametsa; baina gure artean izan dugu COVID-19a eta hainbat eskaintza edo egiteko modu egokitu behar izan ditugu. Hala ere, aukera izan dugu Dorletako eraikin berria inauguratzeko eta eraikinaz apropiatzen hasteko.



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) osatzen dugunok erakutsitako inplikazio, konpromesu eta ardurari esker ikasturtea ondo baino hobeto atera dugu! Gainera, Plan Estrategiko berriari hasiera eman diogu eta GUHEZI, Gure HUHEZI, proiektua ere martxan jarri dugu. 2020-2021 ikasturteko datu eta gertakizun nabarmenenak jasoko ditugu honako lerro hauetan:

Arlo akademikoari dagokionez, aurrez aurreko gradu-ikasketetan, Humanitate Digital Globalak gradua abian jarri dugu lehenengo aldiz Bilbao AS Fabrik-en. Horrela, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Humanitate Digital Globalean **976 ikasle** izan ditugu guztira. Aurten ere, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetan egokitzapen-ikastaroak, bigarren graduak edo aipamenak eta gradu osoa online egiteko aukera eskaini da. Guztira, modalitate erdipresentzialean, **221 ikasle** izan ditugu guztira.

Graduondoko ofizialen arloan, 2020-2021 ikasturtean, Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra eskaini dugu lehen aldiz HUHEZIK eskaintzen dituen beste bi master ofizialekin batera: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterra –bi modalitatetan: duala eta erdipresentziala–. eta Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan masterra (Lit), TeamLabsekin elkar-lanean. Masterretan, 201 ikasle izan ditugu 2020-2021 ikasturtean.

Etengabeko formazioan ere gero eta eskaintza zabalagoa dugu. 2020-2021 ikasturtean, zazpi programa eskaini ditugu: Kooperatibagintzan unibertsitate aditu titulua, Herrigintzaren berrikuntzan unibertsitate aditu titulua, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) unibertsitate aditu titulua, KoopFabrika: Ekintzailatza Sozial Kooperatiboko eta Ekonomia Sozialeko unibertsitate aditu titulua, Hezkuntza kooperatiboan unibertsitate espezializazio diploma, Ikaskuntzarako Rol Berriak Hezkuntzan unibertsitate espezializazio diploma eta Chief Learning Officer unibertsitate espezializazio diploma (CLO) - Erakundeetako Ikaskuntzaren

Kudeaketan unibertsitate espezializazio diploma. Bestalde, Kooperatibismoarekin lotuta, 23 formakuntza-saio egin dira eta hezkuntzari dagokionez, HUHEZIKo ezagutza arloen inguruko formazioa eskaini da. Guztira, 2.661 ikasle izan ditugu etengabeko prestakuntzako programa horietan.

3. ziklora begira aipatzekoa da Doktorego Programaren akreditazioa lortu dugula 2020-2021 ikasturtean eta programan, 24 doktoregai izan ditugula. Gainera, 5 tesi aurkeztu dira.

Pandemia medio, ikasturte berezia izan da Ikasleen mugikortasunari dagokionez. Hala ere, 24 ikasle joan dira atzerrira praktikak egitera eta 3 ikaslek estatuan egin dituzte praktikak. Era berean, 12 ikasle atzerritar izan ditugu nazioarteko programetan 2020-2021 ikasturtean.

Ikerketaren arloan, aipatzekoa da HUHEZIKo ikerlari-ek deialdi ezberdinetan lortutako proiektu kopurua (Europako Komisioaren deialdiak, MINECOak, GFA, Eusko Jaurlaritzak...) bai eta lehenengo aldiz HUHEZIK lideratutako proiektuen finantzazioa lortu izana Europa mailan. Esandakoaz gain, 67 artikulua argitaratu dira HUHEZIKtik eta 35 zabalkunde ekintzatan parte hartu dugu. Transferentzia proiektu asko egin dira 2020-2021 ikasturtean, 49, hezkuntza, komunikazioa eta kooperatibismoarekin lotuta.

Aktibitateez gain, HUHEZI Koop. E.-ren helburua da gure komunitatea osatzen dugun pertsona guztien garapen profesionala bermatzea. Horretarako, garatzen jarraitzen dugu Pertsonen garapenerako markoa, harrera-plana hobetu dugu, gaikuntza-plan zabala eskaini dugu, hizkuntza-gaitasunak bultzatzeko eskaintza sendoari eutsi diogu eta norberaren garapenerako ad hoc eskaerak indartu ditugu. Ikasleentzako ere, HUHEZI espazio esanguratsu bat izatea nahi dugu eta bizitza unibertsitarioa indartzen jarraitu dugu: euskararen inguruko hausnarketa eta motibazioa sortzeko kultura-ekimenak antolatu dira, HUHEZINEMArekin 14. edizioa antolatu da eta kirol-eskaintza zabala eskaintzen jarraitu dugu, besteak beste.

IKASLEAK:  
GRADU  
MODALITATE  
GUZTIAK


**976**

MODALITATE  
ERDIPRESEN-  
TZIALEKO  
IKASLEAK

**221**

# AIPAMEN HISTORIKOA

## IKUSPEGI KRONOLOGIKOA





- Urrezko Bikain euskararen kalitate ziurtagiria
- Kooperatibagintzan aditu titulua

2008

2009

- DBHn, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra
- Ekonomia Solidarioan masterra
- Boloniara egokitutako graduak

2007

- Euskal Kulturgintzaren Transmisioan (EKT) aditu titulua
- Huhezinema Film Laburren Jaialdia
- Lehen tesiaren aurkezpena
- Lehenengo Erasmus ikasleen etorrera

2010

- Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan unibertsitate masterra (Ekomu)
- Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan unibertsitate masterra (Berrimet)

2011

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua

2013

- Aretxabaletako campusaren inaugurazioa
- Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego programa

2014

- Hezkuntza gradu osoak online
- Ekonomia Soziala eta Enpresa Kooperatiboa unibertsitate masterra (MCOOP)

2017

Berrikuntza metodologikoa Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduetan

2016



Fakultatearen 40. urteurrena

2015

Berrikuntza metodologikoa Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan

2018

KoLaborategiaren sorrera

2019

- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra (Lit)
- DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra modalitate erdi-presentzialean
- Herrigintzaren berrikuntzan unibertsitate aditu titulua
- Hezkuntza Kooperatiboan espezializazio diploma

2020

- Dorleta eraikinaren inaugurazioa
- Humanitate Digital Globalak gradua (HDG)
- Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra (MCOOP)
- Chief Learning Officer unibertsitate espezializazio diploma (CLO)
- Ikaskuntzarako Rol Berriak Hezkuntzan unibertsitate espezializazio diploma (ROL)



# TXOSTEN AKADEMIKOA

## GRADUAK

2020-2021 ikasturtea ere berezia izan da Covid-19ak eragindako egoerak indarrean jarraitzen duelako: sarrera eta irteera ordutegi mailakatuak, taldeketa txikia, talde-burbuilak, ez-presentzialtasun berezia...

Ohiko graduak eskaintzeaz gain, alegia,

- Haur Hezkuntza gradua.
- Lehen Hezkuntza gradua.
- Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua.

Gradu berri bat jarri dugu abian Bilbao AS Fabrik-en:

- Humanitate Digital Globalak gradua (HDG).

Datuetara etorrita, ikasturte honetan, eta modalitate desberdinak kontuan hartuta, 1.197 graduako ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; horietatik, 404 lehen mailako ikasle berriak izan dira. Horrela banatu dira ikasleak graduka:

| Graduak                           | <b>Ikasleak 1.197</b><br>789 emakumezkoak<br>408 gizonezkoak |
|-----------------------------------|--------------------------------------------------------------|
| Haur Hezkuntza                    | 327                                                          |
| Lehen Hezkuntza                   | 651                                                          |
| Ikus-entzunezko Komunikazioa      | 192                                                          |
| Humanitate Digital Globalak (HDG) | 27                                                           |

Graduko praktika curricularrei dagokienez, guztira 1.076 egonaldi izan dira 2020-2021 ikasturtean; horietako gehienak egin dira ikastetxeetan, enpresetan edo erakundeetan bertan. Gainera, curriculumetik kanpoko beste 79 praktikaldi ere egin dira ikasturte honetan.

Mugikortasun programa oso baldintzatuta egon da pandemia egoerarengatik. Hala ere, 2020-2021 ikasturtean 24 ikasle joan dira atzerrira eta 3 ikasle SICUE programaren baitan, 27 ikasle estatuan egin dituzte praktikak. Incoming ikasleei dagokionez, 12 atzerriko ikasle etorri dira gure nazioarteko programetara.

Mugikortasun programa sustatzeko, akordioak sinatu ditugu Europako 2 unibertsitatearekin eta AEBeko eskola batekin.

Graduarekin lotuta dauden ekitaldiak, azkenik, baldintzatuta egon diran Covid egoerarengatik. Hala, modu erdi-presentzialean egin ziren Huhezinema, Euspot eta bestelako ekitaldi publikoak.



# UNIBERTSITATE MASTERRAK

2020-2021 ikasturtean, guztira 201 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eskaini ditugun lau unibertsitate masterretan; ikasle horietatik 123 emakumezkoak izan dira eta 78 gizonezkoak.

Hiru unibertsitate master eskaini ditugu 2020-2021 ikasturtean:

- DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra. (12. edizioa)
- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra (Lit). (2. edizioa)
- Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra (MCOOP). (1. edizioa)

Horietako bat, Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra (MCOOP), lehenengo aldiz eskaini da. LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak kudeatzen du programa berri hau.

| Unibertsitate Masterrak                                                                                                          | Ikasleak 201<br>123 emakumezkoak<br>78 gizonezkoak |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------|
| DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra | 139                                                |
| Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra (Lit)                                                                | 22                                                 |
| Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra (MCOOP)                                                | 25                                                 |

Gainera, 2020-2021 ikasturtean, amortizazio bidean

zeuden bi masterrek ere hainbat ikasle izan dituzte:

|                                                                                                          |    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena eta Kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan (Berrimet) | 12 |
| Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan (Ekomu)                                           | 3  |



# GRADUONDOAK: ADITU TITULUAK ETA ESPEZIALIZAZIO DIPLOMAK

Bereziki profesionali zuzendutako zazpi graduondo eskaini ditu Fakultateak ikasturte honetan:

- Kooperatibagintzan unibertsitate aditu titulua. (13. edizioa).
- Herrigintzaren berrikuntzan unibertsitate aditu titulua. (2. edizioa).
- Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) unibertsitate aditu titulua. (8. edizioa).
- KoopFabrika: Ekintzailatza Sozial Kooperatiboko eta Ekonomia Sozialeko unibertsitate aditu titulua. (5. edizioa).
- Hezkuntza kooperatiboan unibertsitate espezializazio diploma (Giramundo programa). (1. edizioa).
- Ikaskuntzarako Rol Berriak Hezkuntzan unibertsitate espezializazio diploma (ROL). (1. edizioa).
- Chief Learning Officer unibertsitate espezializazio diploma (CLO) - Erakundeetako Ikaskuntzaren Kudeaketan unibertsitate espezializazio diploma. (1. edizioa).

Graduondo horietatik bi, CLO eta ROL espezializazio diploma berriak, TeamLabs hezkuntza laborategiarekin batera eman ditugu.

| Graduondoak: Aditu titulua eta Espezializazio diplomak                                                                                          | Ikasleak 143<br>87 emakumezkoak<br>56 gizonetzkoak |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------|
| Kooperatibagintzan unibertsitate aditu titulua                                                                                                  | 15                                                 |
| Herrigintzaren berrikuntzan unibertsitate aditu titulua                                                                                         | 11                                                 |
| Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) unibertsitate aditu titulua                                                                            | 20                                                 |
| KoopFabrika: Ekintzailatza Sozial Kooperatiboko eta Ekonomia Sozialeko unibertsitate aditu titulua                                              | 43                                                 |
| Hezkuntza kooperatiboan unibertsitate espezializazio diploma (Giramundo programa)                                                               | 14                                                 |
| Ikaskuntzarako Rol Berriak Hezkuntzan unibertsitate espezializazio diploma (ROL)                                                                | 26                                                 |
| Chief Learning Officer unibertsitate espezializazio diploma (CLO) - Erakundeetako Ikaskuntzaren Kudeaketan unibertsitate espezializazio diploma | 11                                                 |



## ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

2020-2021 ikasturtean, arlo desberdinetan eskaini ditu formazioa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, bereziki, kooperatibismoaren eta hezkuntza-berrikuntzaren jakintza-arloko gaiak jorratuta.

Kooperatibismoarekin lotuta, LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak, 2020-2021 ikasturtean, 23 formakuntza-saio egin ditu. Guztira, 125 formakuntza-ordu eskaini dituzte eta 250 parte-hartzaile bildu dituzte. Oro har, ikastaro horiek kooperatibismoaren ezaugarrietan sakontzea eta kooperatibismoa sustatzea izan dute helburu.

Hezkuntzari dagokionez, hainbat ikastetxe eta erakundetatik etorritako eskaerei erantzun zaie. Eskaerak hainbat gairekin lotuta egon dira: kulturarteko hezkuntza, hezkidetzatza eta genero-berdintasuna; komunikazioa; hizkuntza proiektua eta eleaniztasuna; kulturartekotasuna eta aldaketa sozialak; zientzia, teknologia eta digitalizazioa; hezkuntza berrikuntzaren alderdi metodologikoak; eta zentro eta etapen berrikuntza. 2.661 ikasle izan ditugu programa horietan.



# IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

Fakultateko diru-sarreraren % 16,5 ikerketa eta transferentzia jardueratik etorri da 2020-2021 ikasturtean; 1.771.569,75 €, hain zuzen ere. Aurreko ikasturtearen parean zenbaki absolutuei dagokionez.

Hurrengo lerrootan bilduko ditugu ikasturtean egindako 71 ikerketa proiektu eta transferentzia ekimenetatik garrantzizkoenak.

## IKERKETA

2020-2021 ikasturtean 22 ikerketa proiektuei egin diote aurre Fakultateko ikertzaileek. Egun garatzen ari garen Ikerketa eta Transferentzia proiektuen lan-esparruak Hezkuntzan, Komunikazioan eta Kooperatibismoan kokatzen dira, eta hiru lerro nagusi ditugu:

- Kooperatibismoa, autoeraketa eta giza garapen iraunkorra.
- Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturantzun eta eleaniztunetan.
- Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntza inklusiboan.

Hona hemen, 2020-2021 ikasturtean deialdi konpetitiboetatik zein hitzarmen bidezkoetatik eratorritako ikerketa aipagarrienak:



| Proiektua                                                                                                                                                                                                | Erakundea                | Deskribapena                                                                                                                                                                                                                                                                         |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Personalised digital learning paths to foster social-cooperative entrepreneurship (MyDigiCoop).                                                                                                          | Europa                   | Nahi da unibertsitateko profesionalen kompetentziak eta tresnak aberastea haien ikasleen ekintzailatza sozial kooperatiboa sustatzeko.                                                                                                                                               |
| Engagement of Non-Traditional Students in Professional in professional Higher Education - InclusiPHE.                                                                                                    | Europa                   | Ikasle guztien parte-hartzea sustatzeko esku-hartze multzoak sortuz, ekarpena egin nahi du unibertsitatea ingurune inklusiboagoa izaten laguntzeko.                                                                                                                                  |
| El potencial de la alfabetización específica del área para fomentar el deeper learning en Educación Secundaria dentro del marco de Pluriliteracies Teaching for Learning (PID2019-111655RA-I00) (ALPHA). | Espainiako Ministeritza  | DBHko ikasleen ikaskuntza sakona bultzatu nahi da arloko alfabetatzean eraginez.                                                                                                                                                                                                     |
| Parte hartze kultura eta garapen komunitarioa sustatzen eskola eta herria denontzako izan daitezen.                                                                                                      | Gipuzkoako Foru Aldundia | Ikerketa-ekintza parte-hartzailearen bidez, ikasleengan inpaktu handia duten momentuetan eragin nahi da ikasle guztiei kalitatezko erantzuna emateko eta edozein motatako bazterketak murrizteko.                                                                                    |
| Garapen jasangarrirako helburuen (GJH) gobernantza kooperatibetan: erantzunkidetasuna eta parte-hartze integrala.                                                                                        | Gipuzkoako Foru Aldundia | Proiektu honen helburu nagusia izan da Arrasateko Kooperatiba Esperientziako (AKE) kooperatibak laguntzea GJHak kooperatiben proiektu sozio-enpresarialaren erdigunera ekartzen, parte-hartze integralaren bidetik, erantzunkidetasunean oinarrituriko gobernantza ereduak sakonduz. |
| STEMotiv: Adimen artifiziala eta datu adimenaren bidez ikasleen STEM motibazioa piztu, Gipuzkoako ehun enpresarial zientifiko-teknologikoa indartzeko tresna.                                            | Gipuzkoako Foru Aldundia | Proiektuaren xede nagusia STEM hezkuntza bultzatzea da, horretarako, ikasleen motibazioa ulertuz eta eragiteko estrategiak identifikatuz STEM hezkuntza bultzatuz.                                                                                                                   |

| Proiektua                                                                                                                                                                       | Erakundea                                      | Deskribapena                                                                                                                                                                                                                                               |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ERAGIN: Talentua sustatzeko aztertze eta sustatzeko dinamikak II.                                                                                                               | Gipuzkoako Foru Aldundia                       | Proiektuaren xede nagusia izan da Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Unibertsitate mailako ikasleen talentua eta ikaskuntza garatzeko dinamikak sustatzea.                                                                                               |
| Kooperatiba Fabrika: Ekintzailatza sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala Gipuzkoan sustatzeko programa. Formazio eta ikerketa-sistematizazioa.                               | Gipuzkoako Foru Aldundia                       | Proiektuaren bidez, nahi izan da Gipuzkoan ekintzailatza sozial kooperatiboa sustatzea, Gipuzkoako lurraldeko gizarte kapitala sortu, interkooperatu eta lurraldean saretzea, eta ekonomia sozialaren bidez, erakunde eta pertsonen partaidetza sustatzea. |
| TxikiHezi. Unibertsitateko irakasleak Lehen Hezkuntzako ikasleak matematika arloan (Txikipedia) Humanitate Digitalen bidez trebatzeko proposamen baten diseinua eta balidazioa. | Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)              | Proiektu honen bidez diseinatu eta balidatu nahi da Lehen Hezkuntzako ikasleak matematika arloan Humanitate Digitalen bidez trebatzeko proposamen bat.                                                                                                     |
| Berba lapiko. Garapen metodologikoa ahozko kompetentziaren aurrera egiteko.                                                                                                     | Soziolinguistika Klusterra                     | Ahozko kompetentzia sustatzeko metodologiaren inguruko ikerketa proiektua.                                                                                                                                                                                 |
| HUHEZIKo Hizkuntza Tutoretzan sakontzen: tutoreen jarduna aztertzen eta bilakaera monitorizatzen.                                                                               | Eusko Jaurlaritzak                             | Hizkuntza tutorea rolararen inguruko ikerketa proiektua.                                                                                                                                                                                                   |
| Proyecto de investigación sobre el concepto y la práctica de la corresponsabilidad en las cooperativas de trabajo asociado.                                                     | Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (EKGK) | Erantzunkidetasunaren ulermena eta praktikaren inguruko ikerketa.                                                                                                                                                                                          |
| Herrigintzaren Berrikuntzan egitasmoa.                                                                                                                                          | Gipuzkoako Foru Aldundia                       | Ziurgabetasun garaiotan herrigintzaren historia, erronkak eta berrikuntza uztartzen dituen ikerketa proiektua.                                                                                                                                             |
| Berrikuntza Gipuzkoako Eskoletan.                                                                                                                                               | Gipuzkoako Foru Aldundia                       | Gipuzkoako eskoletan berrikuntza egitasmoak ikertzeko proiektua.                                                                                                                                                                                           |
| “Debako euskararen historia soziolinguistikoa: hezkuntza” ikerketa-proiektua .                                                                                                  | Debako Udala                                   | Debako euskararen historia soziolinguistikoa hezkuntzak izan duen funtzioari buruzko ikerketa proiektua.                                                                                                                                                   |

## TRANSFERENTZIA

Transferentzia-proiektuei dagokionez, 49 proiektu gauzatu ditu Fakultateak 2020-2021 ikasturtean. Hiru jakintza arlotan bildu dira proiektu horiek: hezkuntza, komunikazioa eta kooperatibismoa.

Hezkuntzaren esparruan, ekarpena egin da HHn, LHn, DBHn, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean. Hezkuntza-berrikuntza izan dute oinarri eta askotariko gaiak jorratu dituzte transferentzia proiektuek: espazioak, ikaste-irakaste metodologiak, eraldaketa digitala, hizkuntzen trataera integratua, ikaskuntza sakona, parte-hartzea, hezkidetza, ebaluazioa edo marko konpetentziala, besteak beste.

Komunikazioaren esparruan, 2DEO ikus-entzunezko laborategian aholkularitza eta proiektuen mentorin prozesuak gidatu ditugu. EITB talderako, aldiz, lan-prozesu desberdinen hobekuntzan lagundu diegu. Honako taldeetako prozesuak birdisenatu genituen EITBn: albistegiak, gazteen edukiak, bezero arreta zerbitzua, kirolak, umeentzako eskaintzaren ekoizpena eta zabalkunde departamentua.

Kooperatibagintzaren esparruan, gizarte-berrikuntzaren arloko aholkularitza; kooperatibentzako formakuntza kooperatiboaren diseinua eta inplementazioa; gizarte-erlaketaren inguruko hausnarketa-prozesua enpresa kooperatiboan; bazkide berrientzako eta organo sozialentzako formakuntza kooperatiboa.

Hona hemen transferentzia-ekimen aipagarri batzuk.



| Proiektua                                                                                               | Erakundea                               | Deskribapena                                                                  |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|
| Ikastetxeetako Hizkuntza proiektua diseinatzeko irizpideak eta tresnak.                                 | Nafarroako Gobernua                     | Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren garapena Nafarroako hainbat ikastetxetan.  |
| Irakaskuntza partekatua Lehen Hezkuntzan.                                                               | Bihotz Gaztea ikastola                  | Irakasleekin irakaskuntza partekatua oinarrien eta estrategien lanketa.       |
| Errenteriako hezkuntza-komunitatea saretuz, erantzukidetasunean sakontzen prozesua garatzeko proiektua. | Errenteriako Udala                      | Errenterian hezkuntza-komunitatearen erantzukidetasunean sakontzeko prozesua. |
| Hizkuntza Proiektuaren garapena ikasleen hizkuntza erabileran eta kalitatean eragiteko.                 | Euskal Herriko Ikastolen Elkartea (EHI) | Hizkuntza Proiektuaren garapena hainbat ikastolatan.                          |
| Irakurriaren ulermena sustatzeko prozesuak.                                                             | Kristau Eskolak                         | Ikasleen ulermena sustatzeko ekimenen garapena.                               |
| Ebaluazio sistemaren birdiseinua eta eraikitze prozesua.                                                | Urkide                                  | Ebaluazioaren oinarriak eta tresnen lanketa.                                  |
| Educational Initiatives for Fortifying Workplace Cooperative Identity and Culture: Phase 1 R&D.         | The Evolution Institute                 | Izaera eta kultura kooperatiboak sustatzeko ekimenak.                         |

| Proiektua                                                                                                                                                                        | Erakundea           | Deskribapena                                                                    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|---------------------------------------------------------------------------------|
| Haurreskolak Partzuergoa: Egoeraren diagnosa eta proiektzioa.                                                                                                                    | ISEI-IVEI           | Diagnosiaren osaketa eta aurrera begirako aukeren identifikazioa.               |
| Bertsozale Elkarteko bertsolari-irakasleen prestakuntza gogoetatsua gelako praktiken analisisetatik abiatuta.                                                                    | Bertsozale Elkartea | Bertsolari-irakasleen prestakuntza gogoetatsua.                                 |
| Ordizia, hiri hezitzailea proiektuaren etapa berrirako ildoak marrazteko eta hezkuntza eragileen elkarlana eta harremana sustatzeko egitura eta baldintzeko lantzeko zerbitzua.. | Ordiziako Udala     | Hiri hezitzaile izaera indartzeko prozesua.                                     |
| Hezkuntza eta Hizkuntza proiektuen diseinua, inplementazioa eta jarraipena.                                                                                                      | Larrun Lizeoa       | Ahozko konpetentzia sustatzeko metodologiaren lanketa.                          |
| Lan-prozesuen birdiseinua.                                                                                                                                                       | EITB                | Bost lan-prozesu eta informazio fluxuen birdiseinua.                            |
| Debagoienako GB Plataforma: NORAGUNEaren koordinazioa eta elikatzea.                                                                                                             | Gizabidea Fundazioa | Debagoiena 2030 egitasmoaren baitan, koordinazio eta elikatze lanak NORAGUNEan. |



## ARGITALPENAK ETA ZABALKUNDEA

2020-2021 ikasturtean, guztira 67 argitalpen izan dira. Horietatik 18 dira inpaktu altuko eta ertaineko zerrendetako aldizkarietan argitaratutako artikulua eta prestigiodun argitaletxeetan argitaratutako 16 liburu eta liburu-kapitulu.

| Argitalpenak                               | 67 |
|--------------------------------------------|----|
| Artikuluak                                 | 19 |
| Liburu osoak                               | 6  |
| Liburu-kapituluak                          | 15 |
| Liburu-erreseinak                          | 1  |
| Kongresu eta Jardunaldietako komunikazioak | 14 |
| Dibulgaziorako argitalpenak                | 7  |
| Tesiak                                     | 5  |

| Zabalkundea | 35 |
|-------------|----|
| Webinarrak  | 20 |
| Kongresuak  | 15 |

Argitalpenez gain, ikasturte honetan 35 jardunaldi eta ekitaldi antolatu dira. Antolatu ditugun jardunaldien artean daude, besteak beste, 20 webinar irekiak eta 15 kongresuak. Gainera, 10 hezkuntza-berrikuntzarekin lotutako jardun pedagogikoak eta ikerketa-egun egin ditugu.

## HIRUGARREN ZIKLOA: DOKTOREGO PROGRAMA

2020-2021 ikasturtean, 24 lagun matrikulatu dira gure doktorego-programan. Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan doktorego-programa: Universitat de Vic - Central de Catalunya (UVic-UCC) unibertsitatearekin batera, Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego-programaren inplementazioa garatzen ari gara. Programa horretan, bost doktoregaik egin dute defentsa.



# EGOERA EKONOMIKO- FINANTZARIOA

---

2020-2021 ikasturteko sarrerak 10.720 mila eurokoak izan dira, eta gastuak 10.421 mila eurokoak. Beraz, aldeko emaitza 299 mila eurokoa izan da.

Ikasturte honetan egindako inbertsioak 2.081 mila eurokoak izan dira: 1.963 mila euro Dorleta eraikinaren azken faseko hedapenera eta birmoldaketara bideratu dira, eta gainontzeko 118 mila euroak ikasturteko ohiko inbertsioetara; finantzaketa Mondragon Taldeko FEPIetatik, Gizabidea Fundaziotik eta berezko funtsetatik edo funts propioetatik etorri da.

Balantzeari dagokionez, Egoera Balantzearen Aktibo eta Pasiboa, 2021-08-31n, 13.271 mila eurokoa da.



# KUDEAKETA ORGANOAK

## ANTOLAKETA-EGITURA

### DEKANOA

**Nagore Ipiña**

### ZUZENDARITZA KONTSEILUA

**Nagore Ipiña:** Fakultateko dekanoa

**Aitziber Arregi:** Zuzendari Akademikoa

**Nagore Ipiña:** Ikerketa eta Transferentzia arloko zuzendaria

**Eneritz Garro:** Hezkuntza berrikuntza arloko zuzendaria

**Ainara Artetxe:** Hezkuntza berrikuntza arloko zuzendaria

**Goio Arana:** Komunikazio arloko zuzendaria

**Ainara Udaondo:** Lanki Kooperatibismoaren Ikertegiko eta Profesionalen Prestakuntzako zuzendaria

**Ainhua Leturiaga:** Administrazio eta finantza zuzendaria

### KONTSEILU ERREKTOREA

**Amaia Agirre:** lehendakaria

**Nekane Arratibel:** lehendakariordea

**Nagore Iñurrategi:** idazkaria

### Bokalak:

**Oihana Otaduy**

**Igor Ortega**

**Miren Erdozia**

**Javier Marcos**

**Jose Ramon Zubizarreta**

**Aloha Idiakez**

**Carmen Espinoza**

**Uxue Zarandona**

**Naroa Alijostes**



# FAKULTATEKO LANGILEAK

---

Hau guztia ez litzateke posible izango proiektu honetan inplikatu diren eta parte hartu duten lagun hauen guztien konpromiso sendorik gabe:

- Agirre Garcia Nerea
- Alberdi Ruiz de Alegria Amaia
- Alonso Amezua Idurre
- Altuna Morcillo Saioa
- Alvarez Huerta Paula
- Anton Ustaritz Eneko
- Apraiz Ansola Marikarmen
- Arana Arrieta Goio
- Arebiotorre Landeta Eunate
- Aristi Narbaiza Jon
- Arratibel Insausti Nekane
- Arregi Iribecampos Aitziber
- Arregi Landa Itziar
- Arregi Murguiondo Xabier
- Arrese Errasti Gotzone
- Arriaran Olalde Iñigo
- Arroyo Sagasta Amaia
- Artetxe Aranaz Ainara
- Astigarraga Agirre Idoia
- Azkarate Iturbe Oxel
- Azkue Lete Iker
- Azpeitia Eizaguirre Agurtzane
- Azurmendi Perez De Arenaza Haizea
- Barandiaran Arteaga Alexander
- Baranguan Yarzua Miren
- Barnes Julia Diana
- Barquin Lopez Amelia
- Baztan Miguel Asier
- Beitia Sasiain Loredi
- Belategi Unzueta Onintza
- Bergara Eguren Jokin
- Biain Bidarte Amaia
- Bikuña Munduate Agurtzane
- Bonilla Bermejo Mari Carmen
- Caballero Ramirez Izaskun
- Cabezon Virto Marina
- Carmona Igartua Unai
- Carpintero Martin Ana
- Egaña Osa Txema
- Egizabal Ollokiegi Diego
- Eizagirre Eizagirre Andoni
- Elustondo Astigarraga Izar
- Errazkin Vicente Aitor
- Escandon Lucea Eunate
- Esnaola Illarreta Larraitx
- Esquibel Montero Nagore
- Etxaburu Osa Mikel
- Fallon Mary Sinead
- Flores Puga Beñat
- Galar Perez De Onraita Laura
- Galindez Nafarrate Edurne
- Gallardo Bolaños Enzo
- Galparsoro Garcia Rosa Maria
- Garcia Blazquez Itziar
- Garcia Fernandez Letizia
- Garro Larrañaga Eneritz
- Gastañazatorre Gorrotxategi Idurre
- Goikoetxea Agirre Miren Nekane
- Gomez Aguirrebeitia Aintzane
- Gomez Ara Xabier
- Gonzalez Arenaza Ainhoa
- Gonzalez Atucha Patricia Aranzazu
- Gorrotxategi Alberdi Julene
- Gostin Elorza Andres
- Ibarrondo Del Canto Asier
- Igoa Eriz Xabier
- Illarramendi Beitia Malen
- Imaz Aguirre Ainara
- Imaz Alias Oier
- Imaz Ganzarain Itziar
- Imaz Recondo Oihana
- Iñurrategi Irizar Nagore
- Ipiña Larrañaga Nagore
- Iribas Pardo Haritz
- Irizar Mezo Asier
- Jimenez Arrieta Olaia
- Kanpandegi Berrotaran Aritz
- Kareaga Irazabalbeitia Ariane
- Larrañaga Elorza Ainhoa
- Larrea Arana, Mireia
- Larrea Hermida Iñaki
- Larreategui Alday Ane
- Laskurain Bidaburu Leire
- Lauzurica Arrondo Asier
- Leceta Ruiz De Alegria Ion
- Lersundi Perez Amaia
- Leturiaga Letona Ainhoa
- Lopez de Pariza Martinez de Salinas Andrea
- Lopez Salas Nerea
- Loyola Idiaquez Aitzol
- Madinabeitia Medrano Monika
- Maguregi Sanchez Zuriñe
- Maia Sadaba Markel
- Martin Retegi Jurdana
- Martinez De Lagos Menique Aitziber
- Martinez Gorrotxategi Agurtzane
- Mata Oyanguren Oihana
- Mentxakatorre Odriozola Jon
- Mongelos Garcia Maria Aranzazu
- Montiel Linzoain Jon
- Olea Garramiola Lur
- Ormaetxea Jauregi Unai
- Ortega Sunsundegi Igor
- Otaduy Marauri Oihana
- Ozaeta Elorza Miren Arantzazu
- Partearroyo Olaetxea Maite
- Pavon Arrizabalaga Amaia
- Pedrosa Lobato Maria Begoña
- Perez Lizarralde Miren Karmele
- Portilla Zaldibar Unai
- Quintas Quintas Marta
- Ramirez De Okariz Telleria Iñigo
- Rodriguez Garitano Jone
- Rozas Elizalde Iciar
- Ruiz De Azua Galdos Edurne
- Ruiz de Azua Larrañaga Nerea
- Salegi Arruti Eider
- Sanchez Moran Yera
- Sanchez Murueta Aritz
- Santa Cruz Elorza Sirats
- Sarasua Marichalar Jon
- Sarobe Egiguren Aitziber
- Toledo Delgado Usoa
- Torrealday Gallarreta Amaia
- Torres Lete Maialen
- Udaondo Alberdi Ainara
- Uriarte Gurtubai Ibai
- Uriarte Zabala Leire
- Urizar Zugazagoitia Ane Miren
- Urkia Guridi Iraia
- Videgain Eneko
- Vitoria Gallastegui Jose Ramon
- Zabala Ibarra Ane Miren
- Zarate Herrero Leire
- Zuberogoitia Espilla Aitor
- Zubia Zubizarreta Nerea
- Zubizarreta Pagaldai Ane
- Zufiaurre Astigarraga Miren



**Mondragon  
Unibertsitatea**


**Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea**

Dorleta, z/g  
20540 ESKORIATZA  
Gipuzkoa  
Tel. 943 71 41 57  
[harrera.huhezi@mondragon.edu](mailto:harrera.huhezi@mondragon.edu)

Otalora 31  
20550 ARETXABALETA  
Gipuzkoa  
Tel. 943 71 31 40  
[harrera.huhezi@mondragon.edu](mailto:harrera.huhezi@mondragon.edu)



**[www.mondragon.edu/huhezi](http://www.mondragon.edu/huhezi)**



ENTITATE LAGUNTZAILEA

